

IRAGARKIA

**Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)**

**LHII-ko sukaldarien kategorian aldi baterako lana egiteko lan-poltsa baterako deialdia onartzea.**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak 2019ko apirilaren 3an eginiko bilera arruntean, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«**Lehenengoa**.- Aldi baterako lan-kontratudunak kontratatzeko, LHII-ko sukaldariaren lanbide-kategoriako lan-poltsa bat osatzeko lehiaketaren oinarriak onestea (eranskinean jasota daude).

**Bigarrena**.- Erabaki hau eta oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GUFÉren iragarki-oholean eta web-orrialdean argitaratzea.

**Hirugarrena**.- GUFÉko gerentea gaitzea deialdi hau izapidetzeko beharrezkoak diren ebazpenak eman ditzan.»

Bilbon, 2019ko apirilaren 4an

GERENTEA

Sin.: Teresa Alba Zubizarreta

## **LHII-KO SUKALDARIEN LANBIDE-KATEGORIARAKO ALDI BATERAKO ETA APARTEKO LAN-POLTSA BAT ERATZEKO OINARRIAK.**

### **1.- Arau orokorrak.**

1.1 GUFEn lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostuak aldi baterako betetzeko LHII-ko sukaldarien lanbide-kategoriarako aparteko lan-poltsa bat eratzeko prozedurarako deialdia egiten da.

1.2 Deialdi honek lotu egiten ditu aipatutako erakundea, administrazioa denez gero, eta beronetan parte hartzen dutenak.

1.3 Aparteko lan-poltsa enplegu publikoaren eskaintzaren ondorioz GUFEn indarrean dagoen lan-poltsaren osagarri izango da, eta, gainera, ondorioz gabe utziko ditu enplegu publikoaren eskaintzan sortutako lan-poltsa hori ez den beste edozein.

1.4 Aparteko poltsa honetan sartutako hautagaiei indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboa eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua ezarri beharko zaizkie, besteak beste.

1.5 Hautagaien hautaketa-prozesuak eta aparteko lan-poltsaren funtzionamenduak oinarri hauetan xedatutakoa izango dute aginduzko. Kontratuaren hobekuntza-kasuetan eta eskaintzak egiteko penalizazio-kasuetan, Poltsak Kudeatzeko Irizpideei buruzko agirian xedatutakoa beteko da. Bestalde, aldi baterako kontratuaren bilakaeran gerta daitezkeen gainerako inguruabarrak Poltsak Jarraitzeko Batzordeari jakinarazi ahal izango zaizkio, eta batzorde horrek aztertu ahal izango ditu.

1.6 Deialdi honen oinarriak helbide honetan kontsultatu ahal dira: <http://www.ifas.bizkaia.eus> web orria.

1.7 GUFEn zerbitzurako lan-kontratudun langileen aparteko lan-poltsak izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko legerian euskarri-mota honetarako ezarritako eskakizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu, hain zuzen ere xedapen hauetan ezarritakoak: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzekoari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena.

### **2.- Hautagaien beharkizunak.**

2.1 Aparteko lan-poltsan sartzeko onartua izateko, hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo



b) Europar Batasuneko gainerako estatuetakoko kide bateko nazionalitatea izatea, edota Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenak direla bide langileen zirkulazio-askatasuna aplikatu daitekeen estatu bateko nazionalitatea. Gainera, Espainiako edo Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte har dezakete, nazionalitatea edozein dutela ere, bai ere Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenak direla-eta langileen zirkulazio-askatasuna ezar daitekeen estatu bateko nazionalitatea dutenen ezkontideek, dagokion hitzarmenak hala jasotzen badu eta zuzenbidez banatuta ez badaude. Halaber, baldintza beretan har dezakete parte haien ondorengoek eta haien ezkontidearen ondorengoek, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak edo haien pentzuan bizi diren adin horretatik gorakoak badira.

Aurreko lerroaldeetan adierazitako atzerritarrak eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrak administrazio publikoetara iritsi ahal izango dira, espainiarrek dituzten baldintza berdinetan.

c) Hamasei urte beteta izatea eta, hala dagokionean, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.

d) Dagokion izendapenaren ondoriozko eginkizunak betetzeko behar besteko gaitasun funtzionala izatea.

e) Ez edukitzea hautatu nahi den kategoria bereko lan-kontratudun langile finkoaren izaera.

f) Ez egotea kategoria bereko GUFeko indarreko lan-poltsaren barruan.

g) Diziplina-espeditate batez edozein administrazio publikotako zerbitzutik edo autonomia-erkidegoetako edozein organo konstituzional edo estatutarioren zerbitzutik berezita ez egotea, ezta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikorako erabat desgaituta edo berezita egon ere, lan-kontratudun langileen kasuan bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzeko. Espainiar nazionalitatea ez den beste nazionalitate bateko hautagaiek egiaztatu beharko dute, halaber, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

h) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako titulu hauetako bat izatea: Errestaurazio-zerbitzuen Zuzendaritzako goi-mailako teknikaria, Sukaldaritza-zerbitzuen Zuzendaritzako goi-mailako teknikaria, LHII-ko sukaldaria edo baliokideak. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, beharrezkoa izango da tituluaren homologazioa edo tituluak egiaztatzen dituzten agiriak edukitzea.

i) Arrisku handieneko elikagaien manipulatuzailearen txartela izatea



2.2 Arestian aipatu diren baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean beteta eduki behar dira, eta aldi baterako lan-kontratua egiten denean ere bai.

### **3.- Eskabideak aurkeztea.**

3.1 Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak egutegiko hamabost (15) eguneko epearen barruan aurkeztuko dira, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunaz gero zenbatzen hasita. Eskaera-orriak eranskinean ageri den eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira, telematikoki, [www.ifas.bizkaia.eus](http://www.ifas.bizkaia.eus) erakundearen web-orrian eskuragarri dagoen aplikazio informatikoaren bidez. Halaber aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan.

3.2 Eskaera-orriarekin batera hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

- Tituluaren kopia edo hura lortzeko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen agiriarena.
- Arrisku handieneko elikagaien manipulazialearen txartelaren kopia.
- Aurkeztutako merezimenduen zerrenda.
- Administrazio publikoetan egindako zerbitzuei dagozkien alegatutako merezimenduen egiaztagirien kopia. GUFEREkin kontratu-harremanen bat izan dutelako, beren datuak foru erakunde horretan dituzten pertsonak eskabidean adierazi egin beharko dute hala dela, dagokien ziurtagiria ofizioz eman ahal izateko.
- Hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiriaren kopia, baldin eta datu hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztaturik ez badago bakarrik. Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiaztatu nahi badituzte hizkuntza-eskakizunak, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

3.3 Eskabidean alegatutako merezimenduak besterik ez da baloratuko Balorazio Batzordeak ez ditu kontuan hartuko alegatutako baina justifikatu gabe dauden merezimenduak.

Eskabide-orriarekin batera ez badira aurkezten titulua eta manipulazialearen txartela (oinarriotan eskatuak) edo alegatutako merezimenduen egiaztagiria –hizkuntza eskakizunarena barne–, falta hori ezin izango da zuzendu erreklamazio-fasean, kasu honetan izan ezik: behar bezala justifikatutako kasuetan eta Balorazio Batzordeak hala iritzita, dokumentazio hori aurkeztu ez izana zuzenean egotzi ezin dakiokenean hautagaiari.



Pertsonak Zuzentzeko Departamentuan aurkeztu beharko dira, nahitaez, tituluaren jatorrizkoak, manipulatzailearen txartela, NAN/AIZ, merezimenduen egiaztagiriak eta, hala badagokio, desgaitasun-ziurtagiria, lan-kontrataziorako lehen deiarri erantzuteko. Halakorik ez aurkezteak edo faltsukeriaz jokatzek horrela konfiguratutako lan-poltsan sartzeko eskubidea galtzea ekarriko du, betiere dokumenturen bat faltsutzean hautagaiak bere gain har ditzakeen legezko erantzukizunen kaltetan jo gabe.

#### **4.- Balorazio Batzordea.**

4.1 Balorazio Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Presidentea:

- Inmaculada Loroño Ormaetxea andrea, Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioko burua.

Epaimahaikideak:

- María José Larrinaga Artetxe andrea, Aukeraketa eta Hornikuntza arloko burua funtzioetan.
- Ainhoa Ibarguren Pinilla andrea, Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko goi-mailako teknikaria.
- Fidel Martínez Ruiz jauna, legelari-aholkularia.
- María José Vivanco Carro andrea, sukaldaria.

Idazkaria:

- Aimar Ordóñez Uriarte jauna, Pertsona Zuzentzeko Departamentuko lan-harremanetarako teknikari ertaina.

Idazkariak hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa emateko eskubidea.

4.2 Balorazio Batzordea ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun baldin eta gutxienez epaimahaiburua eta idazkaria –edo, hala bada, haien ordezkioak– eta kideen erdiak ez badaude.

Batzordeak eskumena izango du deialdi honen aplikazioaren ondorioz sortutako arazo guztiak ezartzeko eta interpretatzeko, baita ere aurrez ikusita ez dauden kasuetan zelan jardun behar den erabakitzeke ere.

4.3 Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Balorazio Batzordearen egoitza GUFeko bulegoetan egongo da.

4.4 Batzorde horretan parte hartzea dela-eta egin beharreko egonaldiak, lankidetzak eta abar ordaintzeko, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuan zein ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio; azken dekretu horren



bidez, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko dekretua hirugarren aldiz aldatzen da (EHAA, 122. zk., 2006ko ekainaren 28koa).

### **5.- Baloratu behar diren merezimenduen egitura eta sailkapena.**

Hautaketa-prozesua merezimenduen balorazio-fase bakarrean egituratuko da, baremo honen arabera:

A) *Lanbide-esperientzia*. Atal honetan gehienez 30 puntu emango dira, baremo honen arabera:

– Emandako zerbitzuak lan egindako hilabete bakoitzeko baloratuko dira. Egindako zerbitzuei buruzko ziurtagirietan, urtetan adierazita ageri den denbora hilabetetara aldatuko da, urte bakoitzeko hamabi hilabete irizpidearen arabera, eta egunetan adierazitakoa hilabetetara aldatuko da, hilabete bakoitzean hogeita hamar egun sartuta.

– Herri Administrazioetan, deialdiaren xedeko lanbide-kategorian edozein harreman juridikoren bidez egindako zerbitzuak baloratuko dira, zerbitzu zibilen edo merkataritzako zerbitzuen errentamendu-kontratuen bidezkoak izan ezik: 0,18 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko. Nolanahi ere, aurkeztutako merezimenduak zenbatzeko erreferentzia-data beti izango da oraingo deialdi hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako eguna.

Egindako zerbitzuak egiaztatzea: Merezimenduek Administrazioaren agiri edo ziurtagiri bidez egon behar dute ziurtatuta.

Egindako zerbitzu horien ziurtagiriek eta lan-kontratuek lan egindako kategoria, lanaldi-portzentajea eta lan egindako aldiak jaso behar dituzte. Edozein kasutan, zerbitzua modu partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osotzat hartuko dira.

B) *Euskara*. HE1 tituluak 2,5 puntuko balorazioa izango du.

Bizkaiko Foru Aldundian edo GUFEn hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztatuz ageri direnek ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak berariazko baimena emango dio GUFeri, erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, aurkeztu beharko dute euskararen egiaztagiria edo titulua, baldin eta erregistro horretan egon ez arren azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago (dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira).



Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

## **6.- Hautagaien poltsak egiteko era.**

6.1 Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta Balorazio Batzordeak hautagaiak egiaztatutako merezimenduak baloratu eta gero, GUFeko onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak onetsiko ditu gerenteak, baztertutako kasuan baztertu izanaren arrazoia zehaztu behar delarik. Onartutako zerrendan, onartutako hautagai bakoitzak lortu dituen puntuak jasoko dira, eta GUFEn iragarki-oholean eta web orrian argitaratzeko agindua emango da.

Interesdunek egutegiko 10 eguneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita, hartan jasotako datuak zuzendu edo haien inguruko alegazioak aurkezteko. Erreklamazioetan ezin izango da eskatu eskabidean eskatutako merezimenduez kanpoko beste merezimendu batzuk azaltzeko edo egiaztatzeko. Balorazio Batzordeak ez du kontuan hartuko zuzenketak egiteko epearen barruan aurkeztutako eta merezimenduak handitzea ekar dezakeen beste inolako agiririk.

Epe hori igarota, Balorazio Batzordeak interesdunek aurkeztutako alegazioei buruzko txostena idatziko du eta lan-kontratudun pertsonak aldi baterako kontratatzeko aparteko lan-poltsa, hautagai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera antolatua, behin betiko onesteko ebazpen-proposamena bidaliko dio GUFeko gerenteari.

6.2 Azken puntuazioa hautaketa-prozesu osoan deialdi honen bosgarren oinarrian ezarritako baremoaren arabera lortutako puntu guztien batura izango da eta bi hautagai edo gehiagoren artean egon daitezkeen berdinketak direla eta, bosgarren oinarrian adierazitako merezimenduetako bakoitzean, oinarrian bertan adierazitako hurrenkeraren arabera, lortutako puntuaziorik handienari begiratuta erabakiko da.

Berdinketak bere horretan badirau, hura ebazteko irizpidea hautagaien abizenaren hurrenkera alfabetikoa izango da; kasu honetan, "Q" letraz hasitako abizena dutenetatik hasita; izan ere, hala ezartzen du Herri Administrazioen Estatuko Idazkaritzaren 2019ko martxoaren 15eko Ebazpenak (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 66. zk., matxoaren 18koa), haren bidez, argitara ematen da Estatuaren Administrazioan Langileak Sartzeko Erregelamendu Orokorrak aipatzen duen zozketaren emaitza. "Q" letraz hasitako abizenik ez badago, "R" letraz hasitako abizena duten pertsonekin hasiko da.

Hori nahikoa ez bada, urte gehien dituen pertsonaren alde ebatziko da berdinketa.



6.3 Prozesu honen ondoriozko zerrenda GUFEn iragarki-oholean eta web orrian argitaratuko da eta indarrean jarraituko du aparteko beste lan-poltsa bat, aurrekoa ordezkatzeko duena, edo, nolatan ere, beste EPE bat egin arte.

## **7.- Azken arauak.**

7.1 Oinarri hauetan xedatuta ez dagoenerako, hautaketa-probak egiteko orduan honako legezko testu hauetan xedatutakoaren arabera jokatu da: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publiko Eraldatzeko Neurriei buruzkoa; martxoaren 10eko 364/1995 Errege-Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuko Langileriaren Sarrerari buruzko eta Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Zibilen Lanpostu-Hornikuntzari eta Lanbide-Sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra, Toki-Araubideari buruzko gaietan indarrean dauden Xedapenen testu bat-egina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, Toki Administrazio funtzionarioen hautaketa-prozesuak bete behar dituen oinarrizko erregelak eta gutxienezko programak ezartzen dituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikorako sarbidea eta lanpostuen hornikuntza arautzen duen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Epaimahaietarako Eskuliburua.

7.2 Deialdia, deialdiaren oinarriak eta deialdiaren eta epaimahaiaren jarduketan ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako kasuetan eta eran.

7.3 Salbuespen legez, deialdi honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke, GUFeko Gobernu Batzordeari zuzenduta, hilabeteko epearen barruan, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa txandaren arabera dagokion Bilboko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan, baina ezin izango da errekurtso biak batera jarri.

Bilbon, 2019ko martxoaren 21ean.



## 1 ERANSKINA / ANEXO I

### Aldi baterako lan-poltsa - Onarpen eskabidea / Bolsa de trabajo temporal - Solicitud de admisión

#### 1. Deialdia / Convocatoria

Taldea eta azpitaldea / Grupo y subgrupo	Kategoria / Categoría
--	-----------------------

#### 2. Norberaren datuak / Datos personales

Lehen deitura / Primer apellido	Bigarren deitura / Segundo apellido	Izena / Nombre	
NAN-ANZ / DNI-NIE	Jaioteguna / Fecha nacimiento	Sexua / Sexo E./M. <input type="checkbox"/> G./H. <input type="checkbox"/>	
Helbidea: kalea edo plaza, zk., solairua / Dirección: calle, plaza, nº, piso	PK / P.C	Herria / Localidad	Lurraldea / Territorio
Telefonoa / Teléfono	Posta elektronikoa / Correo electrónico		
Desgaitasuna duen pertsona / Persona con discapacidad BAI/SÍ <input type="checkbox"/> NO/EZ <input type="checkbox"/>	GUFeko lan-kontratu mugagabeko langile finkoa/Personal laboral indefinido fijo del IFAS BAI/SÍ <input type="checkbox"/> NO/EZ <input type="checkbox"/>		

#### 3. Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria

Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa / Titulación exigida en las bases específicas
--

#### 4. Euskara / Euskera

Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna / Perfil acreditado 1HE / PL1 <input type="checkbox"/> 2HE / PL2 <input type="checkbox"/> 3HE / PL3 <input type="checkbox"/> 4HE / PL4 <input type="checkbox"/>
---

#### 5. Bizkaiko GUFEn emandako zerbitzuak / Servicios prestados en IFAS Bizkaia

<input type="checkbox"/> Bai, GUFEn dagokion kategorian zerbitzua eman dut, eta eskatzen dut aipatutako zerbitzuak ofizioz ziurtatu daitezen / Sí, he prestado servicios en la categoría correspondiente en IFAS y solicito que me sea expedida de oficio la certificación de dichos servicios
--

Beheko sinatzaileak eskabide honetan adierazten den aldi baterako lan-poltsan onartua izatea eskatzen du, eta eman dituen datuak benetakoak direla adierazten du; baita deialdiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela ere. Halaber, konpromisoa hartzen du eskaera honetan jarritako datu guztiak agiriaren bidez frogatzeko.

La persona abajo firmante solicita ser admitida en el proceso de constitución de bolsa de trabajo temporal a que se refiere la presente instancia y declara que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas en la convocatoria, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma

#### Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen kudeatzailea / Gerente del Instituto Foral de Asistencia Social

Europar Parlamentuko datu pertsonalen babeserako 2016/679 Araudia betetzeko, jakinarazten dizugu eskabide honetan agertzen diren datuak norberaren datuen fitxategi automatizatuan jasoko direla. Fitxategi horren helburua hautaketa-prozesu hau kudeatzea da, baita prozesutik sortuko diren lan-poltsak kudeatzea ere. Lan-poltsak beste administrazio batzuei utziko zaizkie eskatuz gero. GUFeko kudeatzailea da fitxategiaren arduraduna, beraz, datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeke, organo horretara jo beharko duzu (Ugasko bidea 5bis - 1.solairua 48014 Bilbo).

Según el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo relativo al tratamiento de datos personales, le informamos que los datos personales contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de este proceso selectivo, así como la correspondiente a las bolsas de trabajo que se deriven del mismo y que serán, en su caso, cedidas a otras administraciones públicas previa solicitud por éstas. La responsable de este fichero es la Gerente del IFAS, y ante ella podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación y cancelación (C/ Camino de Ugasko 5 bis, 1- 48014 Bilbao).



## Merezimenduak / Méritos

### 1. Norberaren datuak / Datos personales

Lehen deitura / Primer apellido	Bigarren deitura / Segundo apellido	Izena / Nombre		
NAN-ANZ / DNI-NIE	Jaioteguna / Fecha nacimiento	Sexua / Sexo E./M. <input type="checkbox"/> G./H. <input type="checkbox"/>		
Helbidea: kalea edo plaza, zk., solairua / Dirección: calle, plaza, nº, piso	PK / P.C	Herria / Localidad	Lurraldea/Territorio	
Telefonoa / Teléfono	Posta elektronikoa / Correo electrónico			

### 2. Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda / Relación de méritos alegados

Soilik adierazi zein administrazio publikotan egin duzun lan. Eskaera-orriari lan egindako administrazio publikoen ziurtagiriak gehitu beharko zaizkio / Relacionar únicamente las administraciones públicas en las que se han prestado servicios adjuntando los correspondientes certificados de servicios prestados

1)
2)
3)
4)
5)
6)
7)
8)
9)
10)
11)
12)
13)
14)
15)
16)
17)
18)
19)
20)

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma



## Interesatuarentzako jarraibideak

### Orokorrak

- Makinaz edo boligrafoz bakar-bakarrik eta letra haundiak edo inprenta motakoak erabiliz idatz ezazu.
- Zehaztasunak ale guztietan argi irakur daitezkeela berma ezazu.
- Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin.
- Inprimakia izenpetu egin behar duzu.

### Derrigorrezko dokumentazioa

Eskaera-orriari ondokoak batu beharko zaizkio nahitaez:

- Tituluaren kopia edo hura lortzeko eskubideak ordainduta izatearen agiria.
- Arrisku handieneko elikagaien manipulatzailerearen txartelaren kopia.
- Alegatutako merezimenduen zerrenda.
- Lan egindako administrazio publikoen aurretiazko zerbitzuen ziurtagiriaren kopia. GUFEn lan egin dutenek eskabide-orrian adierazi beharko dute, dagokion ziurtagiria ofizioz bidal dadin.
- Hizkuntz-eskakizunaren ziurtagiriaren kopia; Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri ez direnak soilik.  
Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

## Instrucciones para la persona interesada

### Generales

- Escriba solamente a máquina o con bolígrafo sobre superficie dura, utilizando mayúsculas o tipo de imprenta.
- Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares.
- Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras.
- No olvide firmar el impreso.

### Documentación obligatoria

A la instancia se acompañará necesariamente:

- Copia del título o de los derechos abonados para obtenerlo.
- Copia del Carnet de Manipulador/a de Alimentos de Mayor Riesgo.
- Relación de méritos alegados.
- Copia acreditativa de los méritos alegados correspondientes a los servicios prestados en las Administraciones Públicas. Las personas cuyos datos consten en el IFAS por haber tenido relación contractual con este Instituto Foral deberán indicarlo en la solicitud para que el certificado correspondiente sea emitido de oficio.
- Copia del certificado del perfil lingüístico; tan solo para el supuesto de que tal circunstancia no figure acreditada en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera. Quienes acrediten el perfil lingüístico al amparo del Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, deberán aportar la certificación académica que corresponda.